

BERRI OROKORRAK

2020ko urtarrilaren 24ean 18. zenbakia

1.-Urtarrilak 30eko greba deialdia.

Jakinarazten da, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, greba deialdi orokorra egin du urtarrilaren 30erako eta Udarregiko langileak, asanbladan bilduta, deitutako greba-deialdiarekin bat egitea erabaki du.

Beraz, hurrengo ostegunean, urtarrilak 30ean, Ikastolako eta Haur Eskolako langileek greba egingo dute.

Ikastolak bere ateak zabalduko ditu, Dekretuak ezarritako zerbitzu minimoak eskaintzeko, Ikastetxeetan, minimo horiek izanik, ikastolako ateak irekitzea eta bertaratu nahi duten ikasle horien segurtasun - baldintzak eta zaintza bermatzea. Hori dela eta, eraikin bakoitzean langile bat egongo da bertaratzen direnen harrerarako.

- Garraio, goizeko zaintza eta jangela zerbitzurik ez da egongo.
- ZIRIMARA saiarik ez da egongo.

2.-2020/21 ikasturterako matrikula-kanpaina.

Jakinarazten da **urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra** (biak barne) izango dela **2020-2021 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea.**

Ate irekien eguna urtarrilaren 25ean izango dugu 10:30ean eraikin berriko jangelan (Alperroburu, 5 kalean). Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz. Animatu zaituzte!

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- ✓ Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza integrala (**0-16 urte** bitarte).
- ✓ **Euskalduna:** euskaldun konprometituak hazten ditugu.
- ✓ **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa DBHn.
- ✓ Ikastola **inklusiboa**, guztion ikastola bultzatzen dugu: aniztasuna, garapen eritmo ezberdinak aintzat hartuz.
- ✓ Ikastola **berritzailea:** berrikuntza didaktiko, metodologiko eta teknologiko etengabeak.
- ✓ **KiVa Ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa indarrean.
- ✓ **Autobus** zerbitzua: Lasarte, Zubieta, Santuenea eta Aginaga.
- ✓ **Jangela:** bertan prestatutako herriko produktuekin.
- ✓ **Zaintza Zerbitzua:** 8:00etatik 9:00etara. Irailean eta ekainean **arratsaldeko zaintza** ere bai, 14:30etik 16:30era.
- ✓ **Eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake, antzerkia, robotika,...

Matrikulatzeko ordutegia

o Aldez aurretik **Ikastolara deitu**, ordua adosteko (943-361216) (**3 urtetik-16urtera**)

Matrikula gauzatzeko ekarri beharreko agiriak

- o Udaleko bizikidetza-ziurtagiria
- o Familia-liburua
- o Gurasoen NAN
- o Gizarte Segurantzako txartela
- o Kontu korrante baten zenbakia (IBAN eta BIC kodeak)
- o Hauraren argazki bat

3.-Gatazka: eraldatzeko aukera.

Hitz-aho guraso elkarteak, Arremanitz eta udalarekin batera, gurasoei zuzendutako tailer bat antolatu du.

NOIZ: otsailaren 6an, osteguna, arratsaldeko 17:00etan.

NON: DBHko eraikinean.

GAIA: Gatazka: eraldaketarako aukera

Tratu onez ari garenean, badirudi momentu gatazkatsuek ez daukatela lekurik eta tentsio uneak desagertzen direla. Baina ez da horrela. Pertsonon arteko harremanetan gatazkak ematen dira, saihestezina da. Familian, helduen eta haur eta nerabeen artean ere ematen dira, noski, eta horiei aurre egiteko baliabide falta izaten da batzuetan. Usurbil Tratu Onen herri baterantz transformatzeko nahian, Arremanitz Kooperatibak eta Usurbilgo Udalak, Hitz Aho guraso elkartearekin elkarlanean "Gatazka: eraldaketarako aukera" familientzako tailerra antolatu du, gatazkari beste begirada bat eman eta eraldaketarantz jartzeko.

4.-LH-ko irakurketa liburu zaharren merkatua.

LH-ko irakurketa liburuen berrantolaketaren ondorioz, datorren astetik aurrera, azken urte hauetan ikastolan metatu zaizkigun zenbait irakurketa-liburu jarriko ditugu ikastolako sarreran etxerako hartu nahi dituenarentzat eskuragarri. Ez galdu aukera, harribitxiak baitaude nahi duenarentzat eskuragarri!!!

OHARRAK ETAPAKA



HE

1.-2020-2021 ikasturteko matrikula kanpaina.

2020/2021 ikasturterako, 3 urtetik 16 urte bitarteko ikasleen matrikula egiteko epea urtarrilaren 27an irekiko da eta otsailaren 7ra arte egongo da irekita.

Udarregi ikastolako **ate irekiak saioa larunbatean, urtarrilak 25**, izango da. Alperroburu 5eko **eraikin berriko jangelan** goizeko **10:30ean**.



HH

1.-HH 3ko familientzat oharra.

HH 3ko familiei zuzendutako **bilera pedagogikoa** egingo dugu.

Noiz: urtarrilaren 28an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Non: seme-alabaren gelan.

Oharra: HH 5eko gelan, zaintza zerbitzua izango da.

2.-Santa Ageda bezpera.

Otsailaren 4ean, asteartea, **Santa Ageda bezpera** ospatuko dugu. Horretarako, arratsaldean, haurrek **baserritarrez jantzita** etorri behar dute.

Arratsaldeko **16:00etan** LHkoak **herriko frontoian** elkartuko gara abesti batzuk kantatzeko.

Haurrak herriko frontoian jaso beharko dituzue.

OHARRA: datorren astean makilak ekar itzazue, mesedez.

1.- Santa Ageda bezpera.

Otsailaren 4ean, asteartea, **Santa Ageda bezpera** ospatuko dugu. Arratsaldean, haurrak **baserritarrez iantzita** etorri behar dute.

Arratsaldeko **15:00tan kalez kale kantari aterako gara eta 16:00tan herriko frontoian** HHko ikasleekin elkartuko gara elkarrekin abesteko. **Haurrak herriko frontoian hartu ahal izango dituzue.**

OHARRA: datorren astean makilak ekar itzazue, mesedez

2-Sexualitatearen inguruko kezka eta jakinmina asetzeko hitzaldia LH 5eko gurasoentzat.

Aurreko urteetan gurasoekin egindako sexu-heziketa programetatik ateratako galderak, kezka eta gaien inguruko gogoeta egin eta gure seme-alabekin hitz egitea errazteko bi saioko tailerra egingo da.

Helburuak:

1. Sexualitatea balore bat dela ikustea. Sexualitatearen kontzeptuari azaleko hurbilpena egitea.
2. Seme-alaben, haur sexualitatearen ezaugarri orokorrak (haurrak non dauden kokatuak) ezagutzea.
3. Sexu heziketaren onurak ikustea.
4. Heziketarako gakoak eskuratzea. Identitate anitzak (transexualitate egoera eta jokaera ez normatiboak), erotika, errespetuzko harremanak, ardurak, eskubideak... kontzeptuak lantzea.

NOIZ: Otsailaren 3an 17:00etan.

Otsailaren 11n 17:00etan.

NON: Ikastolako jangelan.

Ikastarora etortzeko asmorik izango bazenute, [klikatu hemen](#) **urtarrilaren 28a (osteguna) baino lehen.**

1.-Parekidetasunaren inguruan emanaldia.

Otsailaren 3an, astelehena, arratsaldeko **17:00etan** DBHko eraikinean, DBHko gurasoei bideratutako emanaldia antolatu da.

2.-Sexu heziketako ikastaroa.

DBHn seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako sexu heziketako ikastaroa izango da,

DATAK : Otsailak 10 eta 17

ORDUTEGIA: 17.00-19.00

NON: Udarregi ikastolan, DBHko eraikinean

Maiz, sexualitate gaiari heldu nahi diogunean, gure gaztetxoak jada ez dute gurekin hitz egin nahi. Nola has gaitzke sexualitateaz hitz egiten? Zer helarazi nahi diegu? Nola komunikatu? Zer behar dute?

Ikastarora etortzeko asmoa baduzu, arreta jarri egunerokoan. Gertaerak, egoera zehatzak, elkarriketak, galderak jaso ditzakezu eta ikastaroan lantzeko aukera izango dugu.

Ikastaroaren helburu nagusiak dira:

- Sexualitatea aberasten gaitun balore bat dela ikusi.
- Seme-alaben, sexu-ezaugarri orokorrak ezagutu.
- Heziketarako klabeak eskuratu: kontzeptuak, jarrerak eta komunikazioa.
- Hainbat kontzeptu eta gai: Identitate anitzak, desiraren orientazioa, erotika, errespetuzko harremanak, ardurak eta eskubideak, potentzialak versus estereotipoak, pornografia...

Aholkularitza pertsonalizatua izateko aukera egongo da.

Izena emateko, [klikatu mesedez hemen](#) eta galdetegia bete **otsailaren 4a** baino lehen.